

## Bardajea

LEKAK ETA BABARRU-NAK aihena eskubiz aurrera luzatu eta haz daitezen, parda jartzen zaie geurean, Beterri alde honetan. Makila, haga, zurkaitza, arba... Izen asko du. “Parda” hitza inongo hiztegitan topatu ezinik nabilela “pordoi” aurkitu dut. Bai, Tolosako Pordoi-dantza edo Zardai-dantza sonatuko pordioa. Ibon Sarasolak bere *Hauta lanerako euskal biz-*



JAKOBA ERREKONDO

*tegia* mitikoan honela definitzen du pordioa: “Erromesak edo bidaztiak eraman ohi duen makila luzea”. Eta adibide, Joxe Bixente Etxagarai (1773-1855) bertsolari donostiarraren bertso hau jasotzen du: “Bordoietik zintzilik / kurkubitan ura”. Itxuraz, pertsona baino luzeagoa eta muturra ferratua duen makila da pordioa. Gaztelarazko *bordón*.

Pordioa *bordón*-etik badator, gure baratzeako parda *barda*-tik etortzea ez harritu. Eta, Sarasolaren ez, baina, Azkueren *Diccio-*

*nario vasco-español-francés*-en bai. *Barda*, adar txikiagoz jantzitako zuhaitz baten adarra da.

Garai batean, sororako edo baratzerako pardajea adarrez osatuko zen. Gaur bakana da irudia: etxe aldameneko arbolaren baten bueltan pardak, zutik, haren adarretan bermatuta. Ama zuhaitzaren arrimuan jasotzen ziren, beste zuhaitz bati kendutako adarrak.

Basoan, bide ertzean, txaran, adarra franko izango zuen baratzezainak, eskuera. Aihotza eta aizkora ttikia dantzatzeko iaioa

izango zen, zuhaitzari adarra kendu eta ondoren muturra zorrozteko. Tokian tokiko egurrarekin. Oitzen, Leurtza ibaiaren alderako baratzeetan ezpelezkoak dituzte, han estakak deitzen dieten tomate-makilak. Gaur, aizkorarik ere ba ote du baratzezainak? Gaur egungo pardajeen burdinak eta plastikoak hagingtzen dute: eraikuntzan betoia armatzeko erabil-

tzen diren burdinazko hagatxoak, zerratokian zuzen-zuzen moztu eta zorrozitutako makilak, erratz kirtenetarako aluminiozko tutuak, begi zabaleko polietilenoazko eta polipropilenoazko sare meheak, metalezko hariak eta kableak...

J. M. Barandiaranek jasoa da Ernioko tontor baten Pordonbaratza izena. Mairu baratzeen erako ehorzketak baratze bat ote da, bertako pordoiengatik ezaguna zen toki batean? ■



## Mentuaeren zaputza

GEREZIONDOA, *Prunus cerasus*, neguan txertatu zen. Makatza, basaka edo txertaka deitzen zaio txertatu gabe-koari. Mentuoin hau menditik hartu eta geuk nahi dugun aldaera txertatuko diogu. Neguko txertoa, adarrekoa egin zen hemen. Ez da itsatsi. Mentua ihartuta dago. Behetua, mentuoina bai, bizi da, eta indarrean altsuma berriak eman ditu. Hauek udaran txertatu ahalko dira, begiko txertoa. Txertaketak milaka urte ditu, fruitu arbolak hobetu eta hedatzeko era onena. Geurean ere garrantzitsua, duen izen mordoak lekuko: txertatu, sestratu, mentatu, mentutu, edadon, enpeltatu, pikokatu, eztitu, eradendu... Lehen nonahi zen txertatzaile iaioaren bat. Gaur? ■